

## Batak bestea ekarri

Suposatzen dut egunotan normala dela jarrerak muturrera eramatea. Denon artean zehaztu beharko dugu normaltasun berria delakoa zertan datzan eta hori izan daiteke ezaugarrietako bat (bide batez, normaltasun berria gero eta gehiago



JIRA  
Angel Erro

entzunen dugun esapidea da, hemendik gutxira hitz larrietan idazten hasiko garena eta, esanahiaz hustuta, Erregimen Zahar eta Berriaren arteko aldea adierazteko baliatuko duguna).

Normaltasun Berriak

seguruenik ekarriko duen autoritarismoaren gorakadaren adierazgarri batzuk ikusi ditugu. Asko dira polizia egunotan egin dituen gehiegikerien lekukotasunak (ez beharko luketen beste, Iruñean aste honetan bezala, beren aktuzioen lekukoak saihesteko bide guztiak erabiltzen dituztelako), Kongresuko diputatu batek ere salaketa ilegal bat jarri behar izan zela ere salatzen du (ilegala, baimenduta zerbaite egiten ari zelako eta baita salaketaren kopia emateari uko egin ziotelako ere). Egoeraren larriak ez du jarri horiek zurrizten, baina bai errazten.

Beste muturra oharkabeagoan pasatzen da, baina hori ere badago. Batak bestea ekarriko balu bezala. Jendearen itxialdia arintzeko koreografiak edo ikuskizun musikalak prestatzen dituzten agente irribarretsua. Bata eta bestea sobera daude.

## Barrua

Barru giro izan dugu hilabete eta erdian. Balkoidun etxean kotizazio nabarmen hasi da. Besteek ahal izan duten moduan esutu diote azalaguzkitik gordetzeari. Barruan egon beharrak geure espaziorik intimoenera eramane gaitu: geure baitara. Bizimodua kalean eta jendez inguraturata gertatzen zenean ez genuen ikusi nahi izaten, baina hor barruan denetik daukagu: leihorik gabe gelak, ate bikoitzeko balkoiak, korridore luzeak, terrazak, egongela zabalak, itozteko adinako bainera handiak, zutik



BIRA  
Onintza Enbeita

itutzen gaituzten dutxa txikiak, logela hutsak eta sukalde kargatuegiak. Eta zerrenda batean jarri ditut leihorik gabeko logelen hormak ez botatzeko izan nituen arrazoiak, balkoira atera orduko eguzkia begietan lehertu zaidan aldiak, korridore luzeetan aterean bat zabalteko zalan-tzan galdutako minutuak, terrazara irten eta zer egin asmatu ezin izan dudana garaia, bazter batean baino bete ez ditudan egongela zabalak, flotadore gabe salto egin dudana bainera handiak, ez itoztearen sartu ez naizen dutxa txikiak, logelak hutsik egotearen errua bota die-dan izenak eta sukalde kargatuetatik ihesik ez egiteko topatu izan ditudan motiboak. Eta zerrenda oso labur gelditu zait: nire izena jartzea nahikoa baita neure espazio intimoan dauden pozak eta hutsuneak ulertzeko.

# Giza eskubideen 'osasuna', COVID-19aren aldian

Jon Mirena Landa

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen EHuko UNESCO katedraren zuzendaria

1. COVID-19a gure artean zabaltzen hasia ez zenean, giza eskubideen kultura eta protagonismoa, Euskal Herriaren ere, maldan behera zihoan. Maldan behera munduan populismoa eta demokraziarik eza (demokrazia iliberala ere deitua!), eskuin muturraren presiopean, gero eta herrialde gehiagotan zabaltzen ari zelako. Baina baita Euskal Herriaren ETA osteko egoeran giza eskubideen zentraltasuna ahultzen ari zelako ere. Azkeneko hantza hori lasaia azaltzea komeni da.

2. ETA indarrean egon zen bitartean, gure herrialdean giza eskubideak betetzeari buruzko eztabaidak albistean inguruan lertu nagusia zuen, bai eta kezka soziopolitikoetan nitxo egonkorra ere. Dena indarkeria politikoaren eta haren legitimitate baldintzen inguruan birbilka zebilen. Eta, horregatik, giza eskubideen diskurtsoak, prestigio instituzional eta sozial handia zuen. Giza eskubideen beste indarkeria eta urratze batzuk bigarren maila batean uzten ziren, hala ere. Horrela, adibidez, hasiera batean (90ak arte bederen) memoria historikoa euskal *gatazka*-tik bereizitako errailetan eztabaidatzen zen; edo genero indarkeria garrantzi txikiagokotzat jotzen zen, guztiz desagertuta ez zegoenean. Zer esanik ez arrazakeria, xenofobia edo giza eskubideen beste urratze batzuk bezalako fenomenoekiko arreta maila eskasa, oihartzun askoz txikiagoa baitzuten. *La Vedette* indarkeria eta politikaren konbinazioa zen.

XX. mendeko 90eko hamarkadatik aurrera, indarkeria politikoak berak ere eraldaketa bat jasan zuen bere tramenduko politiko eta instituzionalari dagokionez. Pixkanaka, hierarkia mota bat lantzen joan zen hitz magiko baten laguntzaz: *ekidistantzia*. Hortik aurrera, eskubideen urratze bat, ETA-ren terrorismoak eragindakoa, lehenengo eta ia bakar bilakatu zen, indarkeria politikoaren gainerakoa bigarren mailan utzi zela.

Ekidistantziak, hierarkizazio estrategia gisa (lehenik, eta larriagoa, ETAre-na; eta gero, gainerakoa), giza eskubideen zatiezintasun printzipioa neutralizatu zuen.

Horregatik, ETA desagertu zenean jada *arazoa* desagertuzat jo nahi izan da. ETAk hiltzen ez duenez, ez dago zertaz kezkatu. Bestelako giza eskubideak ez baleude bezala!

Labur esanda: batzuei –zenbait komunikabide eta alderdiri, argi eta garbi– giza eskubideak interesatzen zitzaizkien ETAre kontrako borrokan. Gero, sobera daude.

3. Aurreneko dinamikan geundela, COVID-19a heldu da eta horrek dena estali du. Estali ez ezik, beldurra ere zabaldu du, eta horren atzetik hainbat eskubide kentzeko giroa sortu da. Eta ez hainbeste giza eskubideak autoritateak kendu edo murriztu dituelako, baizik eta, beldurrak jota edota ezustean harapatuta, gu guztiok gure eskubideei uko egiteko prest egon gare-lako. Horren adibide bakar bat, polemikoa apika, nahiko nuke aipatu: hiltzen ari den gaixoari agur esateko errotik kendu izanarena, alegia.

Gertuko pertsona bat hiltzean dagoenean, bere seniderik hurbilenean inguratu ahal izaten dute. Hori gure euskal kulturak berezkoa duen zer-bait da, giza duintasunari berari lotzen

**Alarma egoeran eztabaidagarria da oso hainbat eta hainbat eskubide murriztu izana, bakarrik salbuespen egoeran suspenditu ahal direnak. Forma juridikoak errespetatu gabe, alegia, eskubideak 'de facto' murriztu dira**

zaiona. Formulazio juridiko zorrotzetatik harago, horrek halako oinarriko eskubide bat osatzen du. Jakina, zenbait egoeratan ezin da eskubide hori gauzatu. Baina heriotza aurreikus daitekeen kasuetan, mediku arretaren protokoloetan txertatuta dago, bakardadean hiltzea saiheste aldera, besteak beste.

COVID-19aren krisialdiaren zurrunbilan, ordea, isolamenduaren inertiak aurretik eraman du agur esateko eskubide hori. Protokoloen inguruko zalantzek eta etengabeko aldatzek, batez ere martxoko bigarren asteko lehen faseetan, kasu askotan pertsonak bakardadean hil izana eragin dute.

Oso kutsakorra den pandemia baten salbuespenari erantzutea bateragarria da bakarrik ez hiltzeko eskubide errespetatzearekin. Kutsatze potentzialaren aurrean bisita eta lagun egiteak, zalantzarik gabe, haztapen fina eskatzen duen interes gatazka bat sortzen du. Segur aski, agur esateko eskubidea zati batean sakrifikatu ahal izango da, baina ez erabat, ezta pandemiak eragindako alarma-egoeran ere.

4. Esandakoa ez dadila kritika gisa har! Egoera ez zen erraza. Baina, horregatik hain zuzen ere, ikusi da, inoiz baino argiago, eskubideak zein hauskorrak diren. Izan ere, horien existentzia eta gozamena ez dago soil-soilik lege batzuetan aldarrikatzearen menpe, horrekin –formula magikoa baillitza– dena eginda balego bezala. Arago: alarma egoeran eztabaidagarria da oso hainbat eta hainbat eskubide murriztu izana, bakarrik salbuespen egoeran suspenditu ahal direnak. Forma juridikoak errespetatu gabe, alegia, eskubideak *de facto* murriztu dira.

ETA desagertu ondoren, terrorismoaren aurkako politiketako salbuespeneko filosofiak jauzi handia egina zuen giza eskubideen kaltetan. Orain, osasun emergentziak bigarren jauzi handi bat ere eman du. Gure esku dago, ezkortasunik gabe, horren guztiaren kontzientzia hartu, beldurra astindu eta horri aurre egitea. Giza eskubideak gurek direlako eta guk defendatu behar ditugulako, inoren zain egon gabe.